



## EREMU MIRESGARRIAK

### 02 – ATA ARANA, ARALARKO HERRI GALDUA ETA BESTE ZENBAIT HISTORIA

Agur lagunok!

Gaurkoan Aralarrera hurbilduko gara MADOTZ herritik abiatuz, hau Larraungo ibarraren hegoaldearen ertzean kokatuta dago, bertatik hasera ematen zaio ATA ARANAN zehar doan bideari, “Apaizen Bidea” bezala ezagutua dena alegia.

ATAKO ARANA zintzilikatua dagoen aran bat da, mendi arteko zehar bidea, Aralarko Mikel Deunaren monasterio zaharrera daramana. Ingurune miresgarria; ezkerretara Soroaundi edo Sollaundi (1.045 metro) eta eskuinera Irumuga eta Akier, gain harritsu eta zuhaitzez hornituriko gainak dituela.

Akier mendiaren gaina Eguardimuiño da eta 1.124 metroko garaiera du. Eguerdimuiño izendapena, dirudienez ordutegian du erreferentzi: gailurrak proiektatzen zuen itzalak, eguerdia adierazten omen zien Madotzetik abiatu eta santutegira bidean zihoazen artzain eta ibiltariei.

Antzinako erromes bide honek “Errroldanen harria” bezalako ezustek eskaintzen dizkigu (harrietako bat, zeren aipaturiko Errroldan honek gehiago ere jaurti zituen eta gune desberdinetan). Harri handi bat da, hiru metrokoa, partzialki lurtean sartua. Menhir bat izan daiteke, hein batean giza itxura duena. Ele zaharra dionez, Erroldan erraldoiak, gero Mikel Deunaren Santutegia eraiki zen gunetik jaurti zuena, Madotzeko herritarrek zapaltzeko asmoz, baina, bere kapan trabatu eta bide erdian gelditu zen harria, horrela behin betikoz erraldoiaren hatz-markak harrian gelditu ziren.

Halaber, harriaz osatutako mugarri bat aurkitzen da, diotenez, Madotzeko apaizak Aralarko Mikel Deunaren bisita ugarietako bakoitzean pilatzen joandakoa.

Agiri edo Agiregi 900 metroko garaieran aurkitzen da, antzinako herrixka bat da, Aralarko hegoaldeko inguruan. Indusketak egiten ari dira, toki berezia da. Hilerritik eta elizatik abiatu dira indusketa lanetan, hormen aztarnak besterik gelditzen ez ba dira ere, metro batzuk beherako herria aurkitzen da, arretaz begiratu ezker, antzinako etxeei zegozkion harri multzoak aurkituko genituzke.

Bere sorreraz gutxi ba dakigu ere, bai amaieraz: 1359an, ekialdeko Sakanako beste zenbait biztanleekin batera (XIII. eta XIV. mendeetan, Sakanak 90 herrixka inguru zituen, Uharte Arakilen batu ziren). Ezaguna da, 1350an, 13 sutondo edo etxebizitza zirela; baina 1348 izurriteak eta gosete desberdinek asko murriztu zutenenez populazioa, esan daiteke aipaturiko kopurua gainditzen zuela. Abeltzain eta nekazarien gizartea zen (batez ere laboreak), baita ere, zerikusia izan zezakeen Aralarko Santutegiarekin, bere hurbiltasuna zela eta, erromes leku garrantzitsua baitzen azken hau.

XIV. mendearen erdi aldera, Sakana mugako presioa jasotzen hasi zen, guda ekintzak eta ganadu lapurretak, gipuzkoar eta arabar jauntxoak zenbaitetan tokiko herritarren laguntzaz buruturikoak. Horrek herriak sortzera bultzatu zituen, Etxarri Aranatz 1312an, Lakuntza 1347an eta aipaturiko Uharte Arakil 1359an, ingurua babesteko asmoz “gaizkileen muga” deiturikoan. Buruntza ibarrean, aldiz, Urdiainen (Iruritako gazteluaren inguruan) eta Olaztin, ideia horrek ez zuen aurrera egin.

Agiri eta Uharte Arakilen arteko loturari dagokionez, “legenardunaren ele zaharrak” zera dio: “Agirin legenardun bat bizi omen zan, tokiko anderea eta azkenengo biztanlea. Inork ez zuen maite andere hura, herri guztietan arbuatzen zuten. Baina Uharte Arakilen jaso zuten eta, esker onez, andereak Agiria herriari eskaini omen zion”. Hurrengo arte.



## EREMU MIRESGARRIAK

### 02 – EL VALLE DE ATA, EL PUEBLO PERDIDO DE ARALAR Y OTRAS HISTORIAS.

Hola amigos.

Hoy subiremos a Aralar desde el pueblo de Madotz, situado en el extremo meridional del valle de Larraun, donde comienza el camino que asciende por del valle de Ata, conocido como ‘Apaizen Bidea’.

El valle de Ata es un valle colgado, corredor entre montañas hacia el viejo monasterio de San Miguel de Aralar. Un entorno mágico bordeado a la izquierda por Soroaundi o Sollaundi (1.045 m) y a la derecha la cresta también rocosa y arbolada que forman Irumuga y Akier.

Eguerdimuño es la principal cima del monte Akier, a 1.124 metros de altitud. La denominación de Eguerdimuño parece ser algún tipo de referencia horaria: dicen que la sombra proyectada por el pico permitía establecer, de un modo más o menos preciso, el mediodía a los pastores y caminantes que utilizaban el viejo sendero de subida de Madotz al santuario.

Este antiguo camino de peregrinos nos depara sorpresas como la ‘piedra de Roldán’ –una de ellas, porque el tal Roldán lanzó bastantes y en lugares diversos–. Es una piedra alta, de tres metros, metida parcialmente en el suelo. Parece ser que se trata de un menhir y tiene figura antropomorfa un tanto imprecisa. Cuenta una leyenda que fue lanzada por el gigante Roldán desde el lugar donde después se edificaría el Santuario de San Miguel para intentar aplastar a los vecinos del pueblo de Madotz, pero, tras engancharse con su manto, quedó a mitad de trayecto, y en ella permanecieron marcados por siempre jamás los dedos del gigante. También hay un hito de piedras que, según cuentan, fue amontonando el cura de Madotz en cada visita que hacía al santuario de San Miguel de Aralar. E hizo muchas.

Agiri o Agiregi es un lugar, antigua aldea, a 900 metros de altitud, en la estribación meridional de Aralar. Un sitio singular que está siendo excavado. Las excavaciones han comenzado por la iglesia, de la que quedan restos de los muros, y el cementerio. Unos metros más abajo está el pueblo, donde una mirada atenta descubre montones de piedras correspondientes a las casas que hubo en él.

De su origen poco se sabe pero si se conoce su final: en 1359, cuando, junto con otros moradores de aldeas de la Sakana oriental –en los siglos XIII y XIV toda la Sakana tuvo alrededor de 90 poblados– se agruparon en Uharte Arakil. Es un hecho registrado que en 1350 había 13 fuegos o viviendas habitadas; pero fue mayor ya que no se puede olvidar ni la epidemia de peste negra de 1348 ni las distintas hambrunas de las que vino precedida. Era una sociedad ganadera y agrícola –fundamentalmente de cereal– aunque también pudo tener vinculación con el santuario de San Miguel de Aralar, dada su proximidad, que ya en aquella época era un lugar importante de peregrinación.

A mediados del siglo XIV la Sakana pasará a soportar una presión fronteriza con actos de guerra e incursiones para robar ganado, protagonizado por señores guipuzcoanos y alaveses con la colaboración, en ocasiones, de gentes de la propia zona. Este contexto indujo la formación de villas como la de Etxarri Aranatz en 1312, Lakuntza en 1347 y la nombrada Uharte Arakil, en un segundo intento, en 1359, tendentes a la defensa de la comarca, conocida como “frontera de malhechores”. En el valle de Burunda, en cambio, dónde se contemplaba Villafuerte (en torno al castillo de Irurita en Urdiain) y Villadefensa (en Olazagutia) esta idea no prosperó.

Sobre Agiri y su vinculación a Uharte Arakil habla la leyenda de la leprosa: “Moraba en Agiri una leprosa, señora del lugar y última alma de la aldea. Nadie quería a esta mujer, en todos los pueblos la rechazaban.

Pero he ahí que en Uharte Arakil la acogieron y, en agradecimiento, donó Agiri a esta villa”.

Hasta la próxima.